



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2025eko irailaren 25a

107. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### E SAILA:

#### **Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

- 11-25/MOC-00100. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita albait lasterren eta osorik garatu dezan 11/2017 Foru Legea, uztailaren 3koa, zeinaren bidez aldatu baitzen azaroaren 26ko 33/2013 Foru Legea, 1936ko kolpe militarren ondorioz eraildako eta errepresioaren biktima izandako Nafarroako herritarrei errekonozimendua eta ordain morala ematekoa. Osoko Bilkurak onetsi du (3.or.).
- 11-25/MOC-00101. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita berariazko plan bat gara dezan 6 hilabeteko epean, 2030erako Nafarroako Gobernuaren jabetzako karga-puntuak, normahik baliatzeak, para ditzan. Osoko Bilkurak onetsi du (4.or.).
- 11-25/MOC-00102. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Hiri erabilerako uraren ziklo integralaren 2019tik 2030era bitarteko plan zuzendaria berrikustean Nafarroako Ubidearekiko konexiorako obren exekuzioari buruzko aurreikuspenak mantentzian. Osoko Bilkurak onetsi du (4.or.).
- 11-25/MOC-00107. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita beharritan azterlan bat egin dezan biometano-plentak instalatzeari buruz. Osoko Bilkurak onetsi du (5.or.).
- 11-25/MOC-00111. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita demokrazia kulturalarekin konprometi dadin. Osoko Bilkurak onetsi du (5.or.).
- 11-25/MOC-00113. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita kontratu publikoen esleipenean ustelkeria ekiditen lagunduko duten neurriak jasotzian kudeaketa publikoan. Osoko Bilkurak onetsi du (6.or.).
- 11-25/MOC-00112. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita formula egokiak jasotzian zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzean. Osoko Bilkurak ezetsi du (6.or.).
- 11-25/MOC-00114. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita egiazko etxebizitza plan bat taxutu dezan, eraginkorra izanen dena eta etxebizitzaren arazoa konpontzeko duena Nafarroan. Osoko Bilkurak ezetsi du (6.or.).

**F SAILA:****Galderak:**

- 11-25/POR-00294. Galdera, etorkizunean Babes Zibileko eta Larrialdietako Estatu Agentzia sortzeari dagokionez Nafarroako Gobernuak daukan jarrerari buruzkoa. Osoko Bilkuran izapidetzea (7.or.).
- 11-25/PES-00277. Galdera, Cascanteko osasun-etxe berrirako obren lizitazioari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7.or.).
- 11-25/PES-00294. Galdera, Lesakako oinarrizko osasun-eskualdean medikuntzako profesionalak falta izateari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8.or.).
- 11-25/PES-00297. Galdera, Nafarroako itxaron-zerrendatik zenbait espezialitate kendu izanaren arrazoiari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8.or.).
- 11-25/PES-00301. Galdera, Nafarroako Ubidearen handiagotzearen 10. eranskinari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9.or.).
- 11-25/PES-00305. Galdera, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioak Errioxan deitutako bilerara joateari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10.or.).

**G SAILA:****Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- 11-25/PEOP-00002. Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzupeko artxiboko eta dokumentu-kudeaketako goi-mailako teknikaria izateko lanpostu bat, funtzionario-araubidekoa eta A mailakoa, oposizio bidez betetzeko. Onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda (11.or.).

---

**E saila:**  
**INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

**11-25/MOC-00100. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita albait lasterren eta osorik garatu dezan 11/2017 Foru Legea, uztailaren 3koa, zeinaren bidez aldatu baitzen azaroaren 26ko 33/2013 Foru Legea, 1936ko kolpe militarren ondorioz eraildako eta errepresioaren biktima izandako Nafarroako herritarrei errekonozimendua eta ordain morala ematekoa**

*OSOKO BILKURAK ONETSI DU*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak 2025eko irailaren 18an onetsitako erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita albait lasterren eta osorik garatu dezan 11/2017 Foru Legea, uztailaren 3koa, zeinaren bidez aldatu baitzen azaroaren 26ko 33/2013 Foru Legea, 1936ko kolpe militarren ondorioz eraildako eta errepresioaren biktima izandako Nafarroako herritarrei errekonozimendua eta ordain morala ematekoa. Hona testua:

"1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du albait lasterren eta osorik garatu dezan 11/2017 Foru Legea, uztailaren 3koa, zeinaren bidez aldatu baitzen azaroaren 26ko 33/2013 Foru Legea, 1936ko kolpe militarren

ondorioz eraildako eta errepresioaren biktima izandako Nafarroako herritarrei errekonozimendua eta ordain morala ematekoa.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, uztailaren 3ko 11/2017 Foru Legetik betetzeke dagoen edukia osorik betetzen hasteko (horren bidez, 1936ko kolpe militarren ondorioz eraildako eta errepresioaren biktima izandako Nafarroako herritarrei errekonozimendua eta ordain morala emateko 33/2013 Foru Legea, azaroaren 26koa, aldatu zen), 12 hilabeteko epean ekitaldi instituzional bat antolatu eta egin dezan, foru lege horren lehenbiziko xedapen gehigarrian jasotzen dena betetze aldera, auzi horrek ukitutako pertsonen eskarien alde".

Iruñean, 2025eko irailaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## **11-25/MOC-00101. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita berariazko plan bat gara dezan 6 hilabeteko epean, 2030erako Nafarroako Gobernuaren jabetzako karga-puntuak, nornahik baliatzekoak, para ditzan**

### *OSOKO BILKURAK ONETSI DU*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak 2025eko irailaren 18an onetsitako erabakia, zeinaren bidez zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita berariazko plan bat gara dezan 6 hilabeteko epean, 2030erako Nafarroako Gobernuaren jabetzako karga-puntuak, nornahik baliatzekoak, para ditzan. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1.- Berariazko plan bat gara dezan 6 hilabeteko epean, 2030erako Nafarroako Gobernuaren jabetzako karga-puntuak, nornahik baliatzekoak, para ditzan, urtero instalazio-mugarriak ezarriko dituena, behar adinako aurrekontua izanen duena eta bestelako neurriak ere aintzat hartuko dituena, hala

nola instalazio seinaleetikoak. Plan horretan jasoko da zutoinen % 50 izanen dela, gutxienez ere, karga laster/ultralasterrekoak, eta zutoinen hedapen orokatu egingen dela Nafarroako eremu zuri eta grisetan, toki-entitateekin lankidetzan.

2.- Kanpaina bat egin dezan, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekin lankidetzan, toki-entitateek karga-zutoin publiko berriak paratu ditzaten eta jada paratuta daudenak berrikus ditzaten, behar bezala funtzionatzen dutela bermatzeko.

3.- Nafarroako Gobernuaren karga-puntuak kudeatzeko plataforma (navarraterecarga) eguneratu dezan, dauden karga-puntu guztiak sartu ahal izateko eta emaitzen kudeaketa eta monitorizazioa egin ahal izateko.

Iruñean, 2025eko irailaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## **11-25/MOC-00102. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Hiri erabilerako uraren ziklo integralaren 2019tik 2030era bitarteko plan zuzendaria berrikustean Nafarroako Ubidearekiko konexiorako obraren exekuzioari buruzko aurreikuspenak mantentzen ditzan**

### *OSOKO BILKURAK ONETSI DU*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak 2025eko irailaren 18an onetsitako erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Hiri erabilerako uraren ziklo integralaren 2019tik 2030era bitarteko plan zuzendaria berrikustean Nafarroako Ubidearekiko konexiorako obraren exekuzioari buruzko aurreikuspenak mantentzen ditzan. Hona testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Hiri erabilerako uraren ziklo integralaren 2019tik 2030era bitarteko plan zuzendaria berrikustean mantentzen ditzan Nafarroako Ubideareki-

ko konexiorako obrak egiteko aurreikuspenak, eta EUTEaren obrak has ditzan 2025-2030 bigarren seiurtekoan, al bait lasterren liberatzeko Lokizko erauzketek dakarten ingurumen-presioa.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du 2019-2030 Plan Zuzendariko jatorrizko inbertsioak mantentzen ditzan, Estellerriko Erribera hornitzeko Nafarroako Ubidearekiko konexioaren eroapenei eta EUTEari dagokienez; 12.000.000 €, hain zuzen ere”.

Iruñean, 2025eko irailaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## **11-25/MOC-00107. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita beharrizanen azterlan bat egin dezan biometano-plantak instalatzeari buruz**

### *OSOKO BILKURAK ONETSI DU*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak 2025eko irailaren 18an onetsitako erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita beharrizanen azterlan bat egin dezan biometano-plantak instalatzeari buruz. Hona testua:

"1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du beharrizanen azterlan bat egin dezan biometano-plantak Nafarroan instalatzeari buruz.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du proiektu-mota horiek ez daitezkeen landu instalatu nahi diren udalerrien adostasunarekin soilik, ezpada toki-entitate mugakideen adostasunarekin ere, hurbiltasunagatik ukituak suerta daitezkeelako planta horien ezarpenak bere-

kin dakartzan ingurumen-, paisaia- nahiz gizarte-eraginaren eskutik.

3. Sesmako biometano-planta instalatzeko proiektu zehatzari dagokionez, ikusita ez dela kokapenari buruzko gizarte- eta udal-adostasunik lortu zuzenean ukitutako herriekin –bereziki, Lodosarekin, zeinak muga egiten baitu eta zuzenean ukitua suertatzen baita, ezen instalazioa bere herrigunetik bi kilometro eskasera egonen litzateke–, premiatiu egiten dira Sesmako Udala eta Biometano Sesma, SL enpresa sustatzailea, alda dezaten hasiera batean planteatutako kokapena, eta azter dezaten Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak planteatu dizkien balizko beste kokapenetako batera lekualdatzea”.

Iruñean, 2025eko irailaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

## **11-25/MOC-00111. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita demokrazia kulturalarekin konprometi dadin**

### *OSOKO BILKURAK ONETSI DU*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak 2025eko irailaren 18an onetsitako erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita demokrazia kulturalarekin konprometi dadin. Hona testua:

"1. Nafarroako Gobernua premiatzen da gure erkidegoak demokrazia kulturalarekin duen konpromisoa aitortu dezan eta, horrenbestez, kultura eskubide eta ondasun komuna dela berrets dezan eta zentsura-ahalegin oro edo sorkuntza artistikoaren, memoria demokratikoaren edo ikerketa akademikoaren manipulazio ideologiko oro gaitzets dezan.

2. Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako kultura-espazioak — museoak, antzokiak, liburutegiak eta arte-zentroak — bizikidetzako, askatasuneko eta kohesio demokratikoko eremu babestu

gisa aitortu ditzan, zeinak babestu egin behar baitira edozein injerentzia alderdikoitatik eta estrategikotzat jo behar baitira aniztasunaren, pentsamendu kritikoren eta erresilientzia sozialaren defentsan.

3. Kultura, Kirol eta Turismo Departamentua premiatzen da aktiboki parte har dezan askatasun kulturala eta eskubide kulturalen defentsa sustatzen duten foro nazionaletan, europarretan eta nazioartekoetan, giza eskubideen eta bizikidetzaren zati integral diren aldetik.

4. Nafarroako Gobernua premiatzen da printzipio horiek indartu ditzan kultura- eta bizikidetzapolitiketan eta, halatan, kultura-espazioak topagune inklusibo, plural eta demokratiko gisa sendotu ditzan”.

Iruñean, 2025eko irailaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## **11-25/MOC-00113. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia- tzen baita kontratu publikoen esleipenean ustelkeria ekiditen lagunduko duten neurriak jaso ditzan kudeaketa publikoan**

### *OSOKO BILKURAK ONETSI DU*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak 2025eko irailaren 18an onetsitako erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiaitzen baita kontratu publikoen esleipenean ustelkeria ekiditen lagunduko duten neurriak jaso ditzan kudeaketa publikoan. Hona testua:

“1.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiaitzen du 5 milioi eurotik gorako lehiaketa publikoen kasuan espedienteak nahitaez bidal dakion Nafarroako Kontratazio Publikoko Ba-

tzordeari, berrikus dezan, baldin eta kontratazio-mahaian boto partikularren bat egon bada.

2.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiaitzen du zorrotz bete dezan Gardentasunari buruzko Foru Legea, Gobernuak kideen, haren goi-kargudunen eta derrigortuta dauden gainerako langileen agendei dagokienez, eta Gardentasunaren Atarian argitara eman dadin, enprekin, pertsonekin eta entitateekin egindako bilerekin dagokienez, bilera horiek non eta noiz egin diren, norke parte hartu duen eta zer gaitz jorratu diren”.

Iruñean, 2025eko irailaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## **11-25/MOC-00112. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiaitzen baita formula egokiak jaso ditzan zenbait zerga aldatu eta beste tributu- neurri batzuk hartzean**

### *OSOKO BILKURAK EZETSI DU*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2025eko irailaren 18an egindako bilkuran, ezetsi egin du Irene Royo Ortín andreak aurkeztutako mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiaitzen baita formula egokiak jaso ditzan zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk har-

tzean. Mozioa 2025eko irailaren 16ko 104. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko irailaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## **11-25/MOC-00114. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiaitzen baita egiazko etxebizitza plan bat taxutu dezan, eraginkorra izanen dena eta etxebizitzaren arazoa konponduko duena Nafarroan**

### *OSOKO BILKURAK EZETSI DU*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2025eko irailaren 18an egindako bilkuran, ezetsi egin du Emilio Jiménez Román jaunak aurkeztutako mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiaitzen baita egiazko etxebizitza plan bat taxutu dezan, eraginkorra izanen dena eta etxebizi-

tzaren arazoa konponduko duena Nafarroan. Mozioa 2025eko irailaren 16ko 104. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko irailaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**11-25/POR-00294. Galdera, etorkizunean Babes Zibileko eta Larrialdietako Estatu Agentzia sortzeari dagokionez Nafarroako Gobernuak daukan jarrerari buruzkoa****OSOKO BILKURAN IZAPIDETZEA**

2025eko irailaren 22an eginiko bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Xedatzea Osoko Bilkuran izapidetu dadin Blanca Isabel Regúlez Álvarez andreak egindako galdera, etorkizunean Babes Zibileko eta Larrialdietako Estatu Agentzia sortzeari dagokionez Nafarroako

Gobernuak daukan jarrerari buruzkoa. Galdera 2025eko irailaren 19ko 105. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2025eko irailaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

**11-25/PES-00277. Galdera, Cascanteko osasun-etxe berrirako obren lizitazioari buruzkoa****FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Leticia San Martín Rodríguez andreak Cascanteko osasun-etxe berrirako obren lizitazioari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko irailaren 5eko 98. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko irailaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Leticia San

Martín Rodríguez andreak galdera egin du, idatziz erantzun dakion, Cascanteko osasun-etxe berrirako obretarako lizitazioa ebazteko prozesuari buruz (11-25/PES-00277). Hona hemen Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariaren erantzuna:

Zertan da Cascanteko osasun-etxe berriko obren lizitazioa ebazteko prozesua?

Kontratua 2025eko irailaren 4an sinatu da, eta obra 2025eko urrian hasiko da.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko irailaren 11n

Osasuneko kontseilaria: Fernando Domínguez Cunchillos

## 11-25/PES-00294. Galdera, Lesakako oinarrizko osasun-eskualdean medikuntzako profesionalak falta izateari buruzkoa

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betetz, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Domingo González Martínez jaunak Lesakako oinarrizko osasun-eskualdean medikuntzako profesionalak falta izateari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko irailaren 5eko 98. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko irailaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Domingo González Martínez jaunak idatzizko galdera egin du, honakoa dioena: Osasun Departamentuak zer neurri ezarri du edo ezarriko du Lesakako oinarrizko osasun-eskualdean medikuntzako profesionalen eskasia zuzentzeko, eta nola antolatuko du lana, atentzio optimoa eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko langileen eskubideak bermatzeko? Zer epetan aurreikusiten du lortuko dela konponbidea? (11-25/PES-00294). Horri buruz, Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak honako honen berri ematen du:

2025ean bilera bat egin zuten departamentuak, zuzendari nagusiak, Oinarrizko Osasun Laguntzako kudeatzaileak eta Lesakako oinarrizko osasun-laguntzako taldeak Arantza, Bera, Etxalar, Igantzi eta Lesakako udaletako alkateekin, Lesakako oinarrizko osasun-eskualdeak bizi zuen egoera esplikatzeko (eskualde horri atxikita daude Bortzirietako bost udalerririk).

Bilera horretan adierazi zen ezen sendagile-plazen betetzearen egoera honako hau zela:

Lesakako 61041. plaza, beteta.

Lesakako 60339. plaza, beteta.

Bera-Etxalarako 60350. plaza, beteta.

Arantza, Igantziako 60798. plaza, beteta.

Berako 60558. plaza, titularra eszedentzian 2025eko ekainaren 30era arte.

Tarteka beteta, sendagile kontratatuen bitartez. Gaur egun, bete gabe.

Berako 65784. plaza, 2025eko uztailaren 21ean erretiroa hartuta. Gaur egun, bete gabe.

Aipatu bileran adosturiko neurria izan zen ezen Berako plaza hutsetako bat kontratu mistoko modalitatean beteko zela bi medikuren bitartez; eta bestea, taldearen Landa Eremuko Larrialdi Zerbitzuaren bitartez.

Halaber, plazetako bat lekualdatze-lehiaketan dago, lan-eskaintza publikoa baino lehenago langile finko baten bitartez estalia izateko aukera eskaintzearen. Dena den, hori egiten den bitartean, zerrenda luzetan eskaintzen segitzen dugu plaza hori, eta aktiboki ari gara profesionalen bila.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko irailaren 12an

Osasuneko kontseilaria: Fernando Domínguez Cunchillos

## 11-25/PES-00297. Galdera, Nafarroako itxaron-zerrendatik zenbait espezialitate kendu izanaren arrazoiari buruzkoa

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betetz, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Leticia San Martín Rodríguez andreak Nafarroako itxaron-zerrendatik zenbait espezialitate kendu izanaren arrazoiari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko irailaren 5eko 98. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko irailaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Leticia San Martín Rodríguez andreak informazioa eskatu du (11-25/PES-00297), jakiteko ea zergatik kendu diren zenbait espezialitate Nafarroako 2025eko ekaineko itxarote-zerrendatik. Horri buruz, Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak honako hau jakinarazten du:

Joan den uztailaren 2ko prentsurrekoan jakinarazi zen bezala, ekaineko datuez geroztik lehen kontsultarako itxarote-zerrenden kontaketa doitu da Estatuko gainerako autonomia-erkidegoetakora, maiatzaren 23ko 605/2003 Errege Dekretuko araudia aplikatuz, zeinaren bidez neurriak ezartzen baitira Osasun Sistema Nazionalako itxaron-zerrende buruzko informazioaren tratamendu homogeneorako. I. eranskinean (“Kanpo-kontsultei eta proba diagnostiko/terapeutikoei buruzko informazio-sistema”) ezartzen da ezen egiturazko itxarote-zerrendak barne hartzen dituela “une jakin batean arreta espezializatuko kontsultan ikusiak izateko edo proba diagnostiko/terapeutiko bat egin dakien zain dauden

pazienteak, zeinen itxaronaldia antolaketari eta baliabide eskuragarri ekoiztekoa baitzaie”.

Espezialitateei dagokienez, indarreko legegien arabera lehen kontsulta berrmatuta daukaten espezialitateei buruzko datuak argitaratzen dira (apirilaren 26ko 21/2010 Foru Dekretuaren, Osasun laguntza espezializatuko itxaronaldien bermei buruzko uztailaren 2ko 14/2008 Foru Legea garatzeko Erregelamendua onesten duenaren, I. eranskina, 2010eko maiatzaren 26ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zena <https://www.lexnavarra.navarra.es/detalle.asp?r=5929983>).

Osasun Mentaleko itxaron-zerrendak psikiatriako kontsultetarako hitzorduak jasotzen ditu.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko irailaren 15ean

Osasuneko kontseilaria: Fernando Domínguez Cunchillos

## 11-25/PES-00301. Galdera, Nafarroako Ubidearen handiagotzearen 10. eranskinari buruzkoa

**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Miguel Bujanda Cirauqui jaunak Nafarroako Ubidearen handiagotzearen 10. eranskinari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko irailaren 5eko 98. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko irailaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**ERANTZUNA**

UPN talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Miguel Bujanda Cirauqui jaunak 11-

25/PES-00301 galdera egin du idatziz, Nafarroako Ubidearen handiagotzearen 10. eranskinari buruz. Hona hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

Aipatu galderak jorratzen duen gaia ez da Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuaren eskumenekoa; izan ere, Nafarroako Ubidearen lehen fasearen handiagotze-obren gaineko eskumenak Lurralde Kohesiorako Departamentuarenak dira 2019-2023 legegintzaldiaz geroztik.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2025eko irailaren 16an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: José María Aierdi Fernández de Barrena

## 11-25/PES-00305. Galdera, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioak Errioxan deitutako bilerara joateari buruzkoa

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Carlos Guzmán Pérez jaunak Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioak Errioxan deitutako bilerara joateari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko irailaren 5eko 98. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko irailaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

UPN talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Miguel Bujanda Cirauqui jaunak 11-25/PES-00305 galdera egin du idatziz, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioak deituriko Errioxako 2025eko uztailaren 23ko bilerara joateari buruz. Hona hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

Adierazi beharrekoa da ezen idatzizko galderak aipatzen duen bilera ez zuela Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioak deitu, baizik eta Errioxa jatorri-deitura kalifikatuko kontseiluarauemaileko lehendakariak, zeinak 2025eko uztailaren 11n gonbidapena egin baitzion Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariari, Logroñoko Bodegas Franco Españolas-en protokolozko topaketa eta bazkari batera joateko.

Prokolozko egintzaren aurretiazko erakusketa Errioxa jatorri-deitura kalifikatura mugatu zen, eta, zehazki, adimen artifizialak (AA) bertako mahastietan izan dezakeen balizko aplikaziora. Gero, bazkari bat egin zen Bodegas Franco Españolas-en, baina Nafarroako Landa Garapeneko eta Inguru-

meneko kontseilaria desenkusatu egin zen bertara joan ezinaz, agenda-arazoak tarteko.

Adierazi beharrekoa da ezen, 2024ko abuztuaz geroztik, Errioxa, Euskadi eta Nafarroako gobernuak jadanik hiruko zenbait lan-bilera egiten eta harremanak izaten aritu direla Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioarekin, mahastizaintza- eta ardogintza-sektorearen egoerari buruzkoak, joan den uztailaren 23ko protokolozko topaketa horretaz landa.

Jarraian zehazten dira egindako hiruko bilerak eta Nafarroako Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria joan denekoak:

Eusko Jaurjaritza-Nafarroako Gobernu bilera

- 2024/07/23

Nafarroa-Euskadi-Errioxa bilera

- 2024/08/30

Errioxa jatorri-deitura kalifikatua (Nafarroa, Euskadi, Errioxa)

- 2024/12/09

Errioxa jatorri-deitura kalifikatuko kontseiluarau-emailea

- 2025/0/22

Errioxa jatorri-deitura kalifikatuaren mendeurrena

- 2025/06/05

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2025eko irailaren 16an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: José María Aierdi Fernández de Barrena

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

**11-25/PEOP-00002. Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzupeko artxiboko eta dokumentu-kudeaketako goi-mailako teknikaria izateko lanpostu bat, funtzionario-araubidekoa eta A mailakoa, oposizio bidez betetzeko**

**Onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda**

95/2025 Ebazpena, irailaren 22koa, Nafarroako Parlamentuko lehendakariarena, zeinaren bidez onesten baita aipatu prozeduran onartutako eta baztertutako izangaien behin betiko zerrenda.

2025eko ekainaren 19ko 122. NAO n argitaratu zen Nafarroako Parlamentuaren zerbitzupeko artxiboko eta dokumentu-kudeaketako goi-mailako

teknikaria izateko lanpostu bat, funtzionario-araubidekoa eta A mailakoa, oposizio bidez betetzeko deialdia, eta haren 5. oinarrian ezarritakoarekin bat, honako hau EBAZTEN DUT:

**1.** Onartutako eta baztertutako izangaien behin betiko zerrenda onestea. Honatx:

**1.1) IZANGAI ONARTUAK:**

Izen-abizenak	Desgaitasuna du	Baliabideak egokitzea eskatu du
Aisa Larumbe, Izaskun		
Ausín Arpón, Ana Beixi		
Bravo Eslava, Jaime		
José Ángel Calvo Berdonces		
Del Río Pozo, Nuria		
Díaz Francés, Maite		
Díez Lecumberri, Sonia		
Domínguez Rodríguez, Onintze		
Elcano Sanz, Eduardo		
Filgueira Izcue, Carmen Aranzazu		
Goñi Equisoain, Gonzalo		
Guinea Errasti, Borja		
Gurpegui Olloqui, Míriam		
Idoate Ancín, Raquel		
Lacarra Martín, Carmen		
Lafuente Falces, Pablo		
Lizarraga Pérez de Zabalza, Silvia		
Merino Lorea, Iñigo		
Monge Setoain, Aitor		
Riezu Elizalde, Óscar		
Rudi Enderiz, Mikel		
Saralegi Lorenzo, Ainhoa		
Solé Llop, Ana		
Suescun Sanz, Leyre		
Turumbay Izurdiaga, Pablo		
Van Oldenbarneveld Genaamd Tullingham, Alberto		
Vidaurreta de la Cruz, Miguel		

**1.2) IZANGAI BAZTERTUAK:**

Izen-abizenak	Desgaitasuna du	Baliabideak egokitzea eskatu du	Baztertze arrazoia
Leone Eguaras, Eduardo			(1) (2)
Munguira Elizondo, Rut	BAI		(1)

(1) Ez du aurkeztu deialdian parte hartzeko eskabidea, I. eranskineko ereduaren arabera, deialdiaren 3.2 oinarrian eskatzen dena.

(2) Epez kanpo aurkeztu du (deialdiaren 4. oinarria).

**2.** Interesdunei jakinarazten zaie deialdiko Artxibistika II gai-zerrendako 26. gaiaren zuzenketa onetsi zela Mahaiak 2025eko irailaren 8an hartutako erabakiaren bidez (2025-09-19ko 105. NPAO). Hartara:

Honako hau esan ordez: “26. gaia. Dokumentu elektronikoak kudeatzeko metadatuaren eskema (e-EMGDE) 3.0 bertsioa (2024)”

Honako hau esan behar du: “26. gaia. Dokumentu elektronikoak kudeatzeko metadatuaren eskema (e-EMGDE) 3.1 bertsioa (2025eko ekaina)”

**3.** Interesdunei jakinarazten zaie deialdiko epaimahaiaren osaera aldatu dela Mahaiak 2025eko irailaren 15ean hartutako erabakiaren bidez, generoparekidetasunaren irizpideari erantzuteko (2025-09-19ko 105. NPAO). Hartara, Langileen Batzordeak ere izendatu ditu deialdi honetako kalifikazio-epaimahairako bere ordezkariak, eta, hortaz, honako hauek osatzen dute epaimahia:

Lehendakaria: María Teresa Esporrín Las Heras andrea, Nafarroako Parlamentuko lehen lehendakariordea.

Ordezkoa: Yolanda Ibáñez Pérez andrea, Nafarroako Parlamentuko lehen idazkaria.

Epaimahaikidea: Mikel Iriarte Cilveti jauna, Nafarroako Parlamentuko Argitalpen, Artxibo, Liburutegi eta Dokumentazio Zerbitzuko burua.

Ordezkoa: Maria Teresa Sola Landa andrea, Nafarroako Artxibo Garaikidearen Ataleko burua.

Epaimahaikidea: Iñaki Montoya Ortigosa jauna, Nafarroako Gobernuaren Artxiboen eta Dokumentu Ondarearen Zerbitzuko artxiboetako goi-mailako teknikaria.

Ordezkoa: Juan Carlos Balda Goldaracena jauna, Nafarroako Gobernuaren Artxiboen eta Dokumentu Ondarearen Zerbitzuko artxiboetako goi-mailako teknikaria.

Epaimahaikidea: Miguel Ángel Laurenz Itoiz jauna, Nafarroako Parlamentuko legelaria.

Ordezkoa: Josetxo Martínez Itoiz jauna, Nafarroako Parlamentuko Prentsako atalburua.

Idazkaria: Silvia Doménech Alegre andrea, Nafarroako Parlamentuko legelari nagusia.

Ordezkoa: Isabel Cañas Palacios andrea, Nafarroako Parlamentuko legelaria.

**4.** Agintzea ebazpen hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Parlamentuaren webgunean argitara dadin.

Iruñean, 2025eko irailaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias